

1. ORDENANTZA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Ondasun Higiezin gainekeko Zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Foru-Arauaren 14.3 artikulua ematen duen baimena erabiliz, Zerga honen karga-mota ondorengo artikuluan ezartzen diren terminoetan finkatu du.

II. KARGA-MOTAK

2. artikulua.

1. Hiri-izaerako ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gainekeko Zergaren karga-mota ERANSKINean adierazten den ehunekotan finkatu da.

2. Landa-izaerako ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gainekeko Zergaren karga-mota ERANSKINean adierazten den ehunekotan finkatu da.

III. ZERGA OINARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua.

1. Hiri-izaerako Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gainekeko Zergaren zerga-oinarria bere balio katastralak eratuko du.

2. Landa-izaerako Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gainekeko Zergaren zerga-oinarria, arau onartutako balio katastralak eratuko du.

3. Zerga honen kuota zehazteko aurreko ataletan adierazitako zerga oinarriei Ordenantza honetako 2. artikuluan finkatutako karga-motak aplikatuko zaizkie.

4. Indargabetuta 2016ko urtarrilaren 1etik.

5. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboiei.



Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	x □ LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren”.

6.- Indargabetuta 2013ko urtarrilaren 1etik.

7.- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren %50eko hobaria ezarriko da energia berriztagarritun sistemak jarri dituzten ondasun higiezinentzat. Hobari edo beherapen hori izateko, beroa sortzeko instalazioetako kolektoreek Administrazioaren homologazioa jaso behar dute, eta hobaria aplikatuko da instalakuntza egin dela ziurtatu ondorengo lehen 5 urteetan.

Hobari honetatik salbuetsita geratzen dira eraikuntza berriko higiezinak, indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoa betez, instalatuta daukatelako sistema hori.

8- Kuota osoaren %50eko hobaria ezarriko da ondasun higiezinentzat, ondasun horiek “Etxebizitza Hutsaren Programa”ren baitan utzitakoak direnean, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren babesean. Beherapen hau aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da Udaletxean.

9. Aurreko artikuluetako hobariak jaso ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.- Higiezinak derrigorrezko udal lizentziak edo baimenak izan beharko ditu.

2.- Subjektu pasiboak honako baldintzak bete beharko ditu:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan errolatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabeak edo abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

VI. GESTIO-ARAUAK



4. artikulua.

1. Zerga honen gestio, likidazio, diru bilketa eta ikuskapen-ahalmenak Gipuzkoako Foru-Aldundian delegatu ahal izango dira, Udalbatzak zehazten dituen termino, eduki eta garrantziaren arabera, eta horretarako dagokion hitzarmena sinatuta.

2. Hartutako udal erabakia GAOn argitaratuko da.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta Eranskinean dauden karga-motak 2016ko urriaren 18an egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Udalbatzak, **2017ko urtarrilaren 1ean** sartuko dira indarrean eta indarrean segituko dute aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

VI. ALDAKETEN HISTORIALA

OSOKO BILKURAREN DATA

ALDATUTAKO ARTIKULUA

INDARREAN SARTU ZEN EGUNA

1990.10.01	1991.01.01	Ordenantza onespena
1991.10.07	1992.01.01	karga-motak
1992.10.26	1993.01.01	karga-motak
1993.10.25	1994.01.01	karga-motak
1994.11.10	1995.01.01	karga-motak
1995.10.24	1996.01.01	karga-motak
1996.10.15	1997.01.01	karga-motak
1997.11.04	1998.01.01	karga-motak
1998.10.29	1999.01.01	karga-motak
1999.10.28	2000.01.01	EZ DA ALDATZEN
2000.10.18	2001.01.01	EZ DA ALDATZEN
2001.09.18	2002.01.01	hiri-ondasunen karga-motak
2001.10.25	2002.01.01	landa-ondasunen karga-motak
2002.10.31	2003.01.01	karga-motak
2003.10.30	2004.01.01	3. artikulua eta karga-motak
2004.10.28	2005.01.01	karga-motak
2005.10.27	2006.01.01	7., 8. eta 9. hobariak; karga-motak
2006.11.02	2007.01.01	karga motak
2007.12.26	2008.01.01	3.5, 3.6 eta 3.7 hobariak; eta karga-motak
2008.12.31	2009.01.01	3.5 hobaria eta karga-motak
2009.12.28	2010.01.01	3.7 hobaria
2010.10.27	2011.01.01	karga motak
2011.10.26	2012.01.01	karga motak eta errekgua
2012.12.20	2013.01.01	karga motak eta babes ofizialeko etxebizitzan hobaria
2013.10.29	2014.01.01	karga motak, errekguaren salbuespenak finkatzen dira , 3.5 eta 3.7 hobariak kentzen dira
2014.10.28	2015.01.01	EZ DA ALDATZEN
2015.10.20	2016.01.01	Errekgua kentzen da eta 3.5 eta 3.7 hobariak berreskuratzen dira
2016.10.18	2017.01.01	karga motak



1. ORDENANTZA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

ERANSKINA

I. ONESPEN DATA: 2016ko urriak 18

II. ZERGA NEURRIAK:

Hiri-izaerakoak:

INDUSTRIALDEAK: Zerga-neurria 0,60

GAINONTZEKO GUNEAK: Zerga-neurria 0,2350

Landa izaerakoak: 1,1